


Herrian zer berri?

2025eko abendua

eh
bildu
**Laz
kao**



Kiroldegia: inbertsio-asmoak eta errealtatea

Inversiones previstas y reales

Euskararen etorkizuna jokoan

Nos jugamos el futuro del euskara

LZK eta Kanpandegi

Galdeketa

Cuestionario

Memoria historikoa Goierrin

Elkarrizketa: Laida Begiristain

Entrevista

Inbertsio-asmoak eta errealitatea

INVERSIONES PREVISTAS Y REALES


Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko

5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseei dagozkien lanen esleipena

2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaizkion 4.035.273,63€,
gehi 847.407,46€ BEZ.

La ampliación del polideportivo Joxemiel Barandiaran (fase 5.1, subfases 1, 2 y 3) fue adjudicada en el Pleno del 31 de marzo de 2022 a la empresa Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. por 4.035.273,63 €, más 847.407,46 € correspondientes al IVA.



- Hasierako aurrekontua (BEZ barne):

Presupuesto inicial (IVA incluído):**4.882.681,09 €**

- Amaierako faktura (BEZ barne):

Factura final (IVA incluído):**6.906.983,37 €**

Proiektuak, beraz, % 44,46ko

desbideratzea izan du

El proyecto ha sufrido una desviación del 44,46 %.

Horrek esan nahi du Lazkaotar bakoitzak 1.000 eurotik gora jarri behar izan duela, hasierako aurreikuspenak gaindituz. Egoera hau, gure ustez, EAJ-PNVren plangintza faltaren eta inprobisazioaren ondorio zuzena da.

El proyecto ha sufrido una desviación del 44,46 %. Cada vecino ha terminado aportando más de 1.000 €, muy por encima de lo previsto inicialmente. A nuestro entender, esta situación es consecuencia directa de la falta de planificación y la improvisación de EAJ-PNV.

KIROLDEGIKO HARPIDETZEN INGURUKO EGOERA

CUOTAS Y MANTENIMIENTO DEL POLIDEPORTIVO

Kiroldegiaren ohiko gastuek (langileak, kontsumoak, mantenimendua...) nabarmen egin dute gora, baina igoera hori ez da modu proportzionalan aplikatu erabiltzaileen kuotetan. Egun, ohiko gastuen % 50 inguru baino ez da abonamenduen eta sarreraren bidez estaltzen; gainerakoa Lazkaotar guztion diruaz ordaintzen dugu. Gainera, kuoten eguneratze faltak ondorio argia du: inguruko herrietako askorentzat merkeagoa da Lazkaoko kiroldegian harpidetzea beren herriko kiroldegietan baino, eta horrek gainkarga sortzen du.

EHBilduk lau urteko plan progresibo bat proposatu du, mantentze-gastuen %75 erabiltzaileen kuoten bidez estaltzea helburu. Plan horren inguruan PNVrekin akordioa lortu eta agiri bat sinatu da

Los gastos de corrientes (personal, consumos, mantenimiento...) han aumentado notablemente, pero este incremento no se ha aplicado de forma proporcional a las cuotas de los usuarios. En la actualidad, sólo se cubre alrededor del 50% del gasto común mediante las cuotas; el resto lo pagamos entre todas las vecinas y vecinos de Lazkao. Además, la falta de actualización de precios provoca que inscribirse en el polideportivo de Lazkao sea más barato para personas de otros municipios que en sus propios pueblos, generando saturación.

EHBildu propuso un plan progresivo de cuatro años para cubrir al menos el 75% de los gastos mediante las cuotas. Alcanzamos un acuerdo con el PNV en este sentido, y firmamos un documento dando fe del mismo.

EHBILDUREN JARRERA POLITIKOA: PLANGINTZA SERIOAREN ALDE

POSICIÓN POLÍTICA DE EHBILDU: DEFENSA DE UNA PLANIFICACIÓN SERIA

Kiroldegiko obren inguruan EHBilduk abstentzio arduratsua mantendu du, hasieratik defendatu dugulako ezinbestekoa dela HAPOren tramitazioa amaitu arte itxarotea. HAPOren bidez jakin dezakegu zeintzuk diren herriaren benetako beharrak, epe ertain eta luzeko ikuspegitik. Guretzat, udalerrriaren garapen orokorra ezin da obra isolatu eta presazkoen logikaren arabera antolatu.

Horregatik, herritarrek merezi dutena da plangintza sendoa, gardena eta estrategikoa, eta ez proiektu solteetan oinarritutako norabide aldakor bat. Aldi berean, argi utzi nahi dugu EHBilduk inoiz ez duela kiroldegiaren aurkako botorik eman, kirolak gure osasunean, bizi-kalitatean eta herri kohesioan duen balioa handia delako. Gure abstentzioa ez da oztopoa, baizik eta herri honen etorkizuna modu arduratsuan eta ikuspegi zabalarekin antolatzeke deia

EHBildu ha mantenido una abstención responsable en el tema del polideportivo, porque desde el principio hemos defendido que es imprescindible esperar a que finalice la tramitación del HAPO. Es a través del HAPO desde donde podemos conocer cuáles son las necesidades reales del municipio, con una visión de medio y largo plazo. Para nosotros, el desarrollo global del municipio no puede organizarse siguiendo la lógica de obras aisladas y decisiones apresuradas.

Por ello, lo que la ciudadanía merece es una planificación sólida, transparente y estratégica, y no un rumbo cambiante basado en proyectos sueltos. Al mismo tiempo, queremos dejar claro que EHBildu nunca ha emitido un voto negativo contra el polideportivo, porque reconocemos el indescriptible valor que tiene para nuestra salud, nuestra calidad de vida y la cohesión del pueblo. Nuestra abstención no es un obstáculo, sino una llamada a ordenar el futuro de este municipio con responsabilidad y con una mirada amplia.



KIROLDEGIKO BESTE AZPIEGITUREN EGOERA

ESTADO DE OTRAS INSTALACIONES

Barruko pista

Urteen poderioz, pista nagusia eta aldagelak hondatu egin dira. Kirol erabilera handia izan arren, azken urteetan oso inbertsio gutxi jaso dute.

Kanpoko igerilekua

Udan oso erabilia den gunea da, baina motz geratu da: pilaketak, itzal falta eta espazio mugatua. Etorkizunean berrikuntza sakona behar du.

Rokodromoa

Mantenu eskasa du, hainbat zati hondatuta daude eta espazioa txikia eta hotza da. Diziplina honentzat proiektu propioa behar da.

Pista interior

Ha sufrido un deterioro evidente y apenas ha recibido inversión pese a su uso intensivo.

Piscina exterior

Muy utilizada en verano, pero insuficiente: masificación, falta de sombra y espacio reducido. Requiere un proyecto de renovación.

Rocódromo

Presenta mantenimiento deficiente, zonas deterioradas y una sala fría y pequeña. Necesita un proyecto específico.

**Ezin da
gehiago
luzatu**

**MANIFESTAZIO
NAZIONALA**
Urtarrilak 10 - Bilbo
17:00 - La Casilla



Manifestacion Nacional
10 de enero - Bilbao
17:00 - La Casilla



**Konponbidea.
Bakea.
Elkarbizitza.**

No se puede
alargar más.
Paz. Resolución.
Convivencia.

EUSKARAREN ETORKIZUNA JOKOAN Euskaltzaleon garaia da

NOS JUGAMOS EL FUTURO DEL EUSKARA
Es la hora de los euskaltzales



Kontseiluak lelo hori aukeratu du euskaltzale guztiok abenduaren 27an Bilbao Arenara deitze-ko. Maizpide Euskaltegiak, Gerriko Kultur Elkar- teak eta Lazkaoko Ikastolak autobusa antolatu dute joan-etorria errazteko deialdiari erantzun nahi diogun lazkaotar guztioi.

Lazkaoko EHBilduk bat egiten du Kontseiluaren deialdiarekin, eta Bilbon izango da abenduaren 27an.

Kontseilua ha elegido este eslogan para convo-arnos a todos los amantes del euskara a Bilbao Arena el próximo 27 de diciembre. Maizpide Euskaltegia, Gerriko Kultur Elkartea y Lazkaoko Ikastola han organizado un autobús para facilitarnos la ida y vuelta a los lazkaotarras que nos unamos a la convocatoria.

EHBildu de Lazkao se suma a la convocatoria y estará en Bilbo el 27 de diciembre.

LZK eta Kanpandegi

LZK enpresen inkubaola berria estreinatu du Lazkaoko Udalak, eta Goieki garapen agentziaren esku utzi du. Orain, eskualdeko garapen agentziak hiru gune izango ditu, hainbana gelakoak, ekintzailtzaren bidean abiatu nahi duten pertsonen laguntzeko: Ordiziakoa, Beasaingoa eta Lazkaokoa.

Eskuarki zerbitzu alorreko ekimenak izan ohi dira bide horretatik abiatu nahi izaten dutenak. Urtero, 15-20 proiektu-idea jasotzen ditu Goiekik, eta bakoitzarekin, hasieran, bideragarritasun-plana diseinatzeko du. Hor izaten da lehen baheketa: proiektu bideragarriak aurrera, eta bideragarritzat hartzen ez direnak bertan behera geratzen dira.

Ez dirudi, beraz, Lazkaoko Hirigoien kalean zabaldu berri diren geletatik Kanpandegi industrialderako proiekturik sortuko denik. Hura handago: berde. Baina ez larre txukunen berdetsuna duelako, sasiak hartua dagoela baizik. Badira lau zapabost urte urbanizatzeko lanak amaitu zituztela. Alkateak sarri erabili du “lanean ari gara” esapidea hutsik daukatela justifikatzeko. Hitz horiekin saihesten du alfer-alferrik egindako inbertsioa zurrutzea.

Orubearen hiritartze-lanak sei milioi bostehun eta laurogei mila berrehun eta hogeita sei euro eta hirurogeita zortzi zentimo (6.580.226,68 €) kostatu ziren. 13.016 m²-ko hedadurako lur-zorua hiritartu zen helburu jakinik gabe. Guztira 63.410 m² ditu industrialdearen zati horrek, Amebi ingurua aurreikusia dagoen bezala, industrialdeari ematen bazaio, eta uholdagarria izateko arriskuagatik industria-rako erabili ezin den Katilusoroko eremua gehitzen bazaio.

Lazkaoko udalak ez dituela gastatu diru horiek esango digute, eta hala da, baina non gastatu ez zekitela bazeuden, emango genizkien guk ideia batzuk. Galdetu besterik ez dute. Ez dirudi etorkizun laburrean inolako enpresa-egitasmo-rik ezagutuko dugunik Kanpandegin, ez dauka gu informazio handirik baina. Izan ere, zer kostatzen da erositako prezioan informazioa ematea? Halako enpresa interesatu da indus-

El Ayuntamiento de Lazkao ha inaugurado la nueva incubadora de empresas LZK y la ha puesto en manos de la agencia de desarrollo Goieki. Ahora, la agencia comarcal de desarrollo contará con tres espacios, distribuidos en varias salas, para ayudar a quienes desean iniciarse en el camino del emprendizaje: el de Ordizia, el de Beasain y el de Lazkao.

Suelen ser iniciativas del sector servicios las que acostumbran a comenzar por esta vía. Cada año, Goieki recibe entre 15 y 20 ideas de proyecto, y con cada una de ellas diseña, inicialmente, un plan de viabilidad. Ahí se pasa el primer filtro: los proyectos viables siguen adelante, y los que no se consideran viables quedan descartados.

No parece, por tanto, que de las salas recién abiertas en la calle Hirigoien de Lazkao vaya a surgir ningún proyecto destinado al polígono industrial de Kanpandegi. Ahí sigue: verde. Pero no verde por ser prados bien cuidados, sino porque lo ha invadido la maleza. Hace ya cuatro o cinco años que finalizaron las obras de urbanización. La alcaldía ha utilizado a menudo la expresión “estamos trabajando en ello” para justificar que sigue vacío. Con esas palabras evita blanquear una inversión realizada en vano.

Los trabajos de urbanización de la parcela costaron seis millones quinientos ochenta mil doscientos veintiséis euros con sesenta y ocho céntimos (6.580.226,68 €). Se urbanizó un suelo de 13.016 m² sin un objetivo definido. En total, el polígono cuenta con 63.410 m², si sumamos el área prevista de Amebi si finalmente se destina al uso de polígono industrial, y si sumando también la zona de Katilusoro, que no puede utilizarse con fines industriales debido al riesgo de inundabilidad.

Nos dirán que el Ayuntamiento de Lazkao no ha gastado ese dinero, y es cierto, pero si no sabían dónde invertirlo, podríamos haberles dado algunas ideas. No tenían más que preguntar. No parece que vayamos a conocer ningún proyecto empresarial en Kanpandegi a corto plazo, aunque tampoco disponemos de mucha información. ¿Qué costará ofrecer información según se



trialdearen egoeraz, handiegia iritzi dio, garestiegia, bere proiektuekin ez du bat egiten... Ez, ez erositako prezioan eta ez garestiago: informazioa gorde; ezkutatu.

Beti ez dute ezkutatzerik, noski. Galdera zuzena egindakoan erantzun behar izaten digute. Hala jakin dugu, orain arte Kanpandegin interesa erakutsi duenik, koste baxuko gasolindegiren bat izan dela, eta beste ezer gutxi gehiago. Gure ustez, horrelako zerbitzugune batek sortuko lituzkeen bizpahiru lanpostuek ez dute justifikatzen horrelako lur-xahuketa bat egin izana.

Badira pertsonak, asko eduki arren, harrokeriarik gabe gorde egiten dutenak. Zer etorriko ere, behar baino gehiago gastatzen ez dutenak. Ezin esan PNVko gure agintariek horrelako joerarik erakusten dutenik; ez, behintzat, denona den lurra kudeatzeko orduan. Hauek, geroko gorde ordeztu, lurra gure ondorengoei zor diegun ondarea dela ahaztuta, ahalik eta gehien estaltzen dute hormigoiz eta asfaltoz, etekin azkarraren aitzakian. Batzuetan iritsi egiten dira etekin horiek; besteetan, ez etekin eta ez lur geratzen gara...

obtenga? Alguna empresa se ha interesado por la situación del polígono: le ha parecido demasiado grande, demasiado caro, no encaja con sus proyectos... No, ni según se obtenga, ni más tarde: la información se guarda; se oculta.

No siempre pueden ocultarla, claro. Cuando hacemos una pregunta directa, deben respondernos. Así hemos sabido que, hasta ahora, quienes han mostrado interés por Kanpandegi han sido, como mucho, gasolineras de bajo coste, y poco más. A nuestro entender, los dos o tres puestos de trabajo que generaría un área de servicio de este tipo no justifican el derroche de suelo que se ha llevado a cabo.

Hay personas que, aun teniendo mucho, guardan sin hacer ostentación. Por lo que pueda venir, no gastan más de lo necesario. No podemos decir que nuestras y nuestros gobernantes del PNV muestren esa tendencia; al menos, no cuando se trata de gestionar un suelo que es de todas y todos. En lugar de reservarlo para el futuro, olvidan que la tierra es un patrimonio que debemos a nuestras y nuestros descendientes, y lo cubren con el máximo hormigón y asfalto posible, con la excusa del beneficio rápido. A veces esos beneficios llegan; otras, nos quedamos sin beneficio... y sin suelo.

Galdezka ari naiz sarritan:

CUESTIONARIO SOBRE POLÍTICA GENERAL

bera bidal diezagukezue edo online erantzun galdeketa hemen sartuta Herritarrok politikaz hitz egitera animatzen zaituztegu lerro hauek bidez. Gure etorkizuna baldintzatzen du politikak, eta gutxi batzuen iritzia bakarrik kontuan hartu ordez, ahalik eta gehienengana iristea da EHBilduren helburua. Guztioak dugu iritzia interesatzen zaizkigun gaietan, eta gure iritzia agente-guneetan eraginik ez duela uste badugu, hori aldatzeko garaia da.

Beraz, zuen inguruan, guraso-taldean, lagun-kuadrillan, kirol-taldean, etab. gai hauetaz mintzatzeraz gonbidatzen zaituztegu. Eta zuen iritzia kontuan har dadin, helaraz diezaguzue, mesedez, orri hau guri. Papera:

Os invitamos a los lazkaotarras a hablar de política, a través de estas líneas. La política condiciona nuestro futuro, y el objetivo de EHBildu es llegar al máximo de ciudadanas y ciudadanos, en lugar de tomar en cuenta la opinión de unos pocos. Todos tenemos opinión sobre los temas que nos afectan, y si creemos que nuestras opiniones no pesan en los espacios donde se toman las decisiones, es hora de cambiarlo.

Por lo tanto, os invitamos a hablar de estos temas en vuestro entorno, en grupo de padres y madres, en la cuadrilla, en el grupo deportivo, etc. Y para que vuestra opinión sea considerada, hacednos llegar, por favor, esta hoja. Podéis enviarnos la hoja o si lo preferís, podéis responder el siguiente cuestionario:



01.- Herritarrek kezkatzen dituzten arazo sozialak nola ordenatuko zenituzke zuk?

(Ordena itzazu 1etik 7ra)

¿Cómo ordenarías los temas sociales que preocupan a las y los ciudadanos?

Ordénalos del 1 (primer puesto) al 7 (séptimo puesto), sin repetir un puesto.

Arazo ekonomikoak
Cuestiones económicas

Egoera politikoa
Situación política

Etxebizitza
Vivienda

Immigrazioa
Inmigración

Lan-merkatua
Mercado laboral

Osasun-zerbitzua
Servicio de salud

Segurtasuna
Seguridad

02.- Etxebizitza alokatzeko emandako diru publikoak prezioak igotzen laguntzen du:

El dinero público invertido en ayudas a la vivienda fomenta la subida de precios:



03.- Udalak hartuko ditu neurriak etxebizitza laskaotarrentzat irisgarriago izan dadin, orain garatzen ari den HAPOan.

En el PGOU que está elaborando actualmete, el Ayuntamiento tomará medidas para que la vivienda sea más accesible a los lazkaotarras.



04.- Energia-jasangarritasunaren gaian udalak herritarrei ematen dien informazioa nahikoa da.

En materia de sostenibilidad energética, la información ofrecida por el Ayuntamiento a las y los ciudadanos es suficiente.



05.- Energia-jasangarritasunean ezer gutxi egin dezake Lazkaokoa bezalako udal batek.

En materia energética poco puede hacer un ayuntamiento como el de Lazkao

06.- Zaintza-alorrean lanean ari diren profesionalak baldintza duinetan ari dira.

Las trabajadoras del sector de cuidados trabajan en condiciones dignas.




07.- Garbi daukat beharra dudanean nola zaindua izan nahi dudun, eta gaur gizarteak eskaintzen duen zaintza eredu horretatik hurbil dago.

Tengo claro cómo quiero ser cuidado/cuidada cuando lo necesite, y los servicios ofrecidos actualmente por la sociedad se aproximan a ese modelo.



08.- Osasunaren zaintzan medikuntzak adina lagun lezake kirolak.

En el cuidado de la salud, puede ayudar tanto el deporte como la medicina.



09.- Kirolean inbertsioak egiteak erabateko lehentasuna du, beste alorretan egitearekin alderatuta.

Las inversiones en deporte tienen prioridad absoluta respecto a otros ámbitos.




10.- Inor ez dugu behartu behar euskaraz jakitera, nahiz eta gaztelaniaz jakitera guztiok behartuta egon.

No debemos obligar a nadie a saber euskara, a pesar de que tenemos la obligación de saber castellano.




11.- Lazkaoko Udalak aurrekontu egokia du euskara sustatzeko.

El ayuntamiento de Lazkao dispone de un presupuesto óptimo para el fomento del euskara.




12.- Herriko kultur programazioa aberatsa da oso.

La programación cultural de nuestro pueblo es muy rica.



13.- Udalak zerikusi handia du kultur programazioa arrakastatsua izatean.

El Ayuntamiento tiene gran protagonismo en la riqueza de la programación cultural



14.- **BONUS GALDERA / PREGUNTA BONUS:**

ASMATZEN DUENAK SARIA IZANGO DU.

QUIEN ACIERTE SE LLEVARÁ UN PREMIO

PNVko ate birakariaren azken bueltak: Andoni Ortuzar Movistar+eko Kontseilari izendatu berri dute, Arantxa Tapia KPMG Kontsultorako aholkulari estrategiko... Zein postu gorde diola uste duzu PNVk Eneko Goia, Donostiako alkate ohiari?

Últimas vueltas de la puerta giratoria del PNV: Andoni Ortuzar ha sido nombrado recientemente Consejero de Movistar+, Arantxa Tapia ha sido nombrada Consejera Estratégica de la consultora KPMG... ¿Qué puesto crees que ha guardado el PNV a Eneko Goia, ex-alcalde de Donostia?





Memoria historikoa berreskuratzeko ariketak Goierri

EJERCICIOS DE RECUPERACIÓN DE LA MEMORIA HISTÓRICA EN GOIERRI

Faxismoaren gorakadak kezkatzen gaituen guztiok egiten dugu bat haren bortizkeria salatzeke, eta egia argitara ateratzeko beharra premiazko jotzearekin.

Norabide horretan, bada Lazkao oraindik argitaratu ez den lan bat. Lan horretan, hirurogeiko hamarkadatik aurrera izandako erruga-been atxiloketak, erabili ziren errepresio-bideak, etab. biltzen dira.

Era berean, Ataunen urteak daramatzate memoria historikoa berreskuratzen, faxismoaren biktimak ezagutarazten eta izen-abizenekin omentzen. Aurtengo ekitaldian Maria Luisa Ruiz de Arana haurra ekarri zuten gogora. Lau urteko haurra, gerran aita galduta, amak eraman zuen Bartzelonara bere anaia jaio berriarekin batera. Ama hura ere han hil zen, Bartzelonan. Ez ziren, ordea hor amaitu Maria Luisa haurraren atseka-beak, anaia ere lapurtu egin baitzioten.

Todas las personas a las que nos preocupa el auge del fascismo coincidimos en denunciar su violencia y en considerar urgente la necesidad de sacar la verdad a la luz.

En este sentido, en Lazkao existe un trabajo que todavía no ha sido publicado. En él se recogen, a partir de la década de los sesenta, las detenciones de personas inocentes, los métodos represivos utilizados, etc.

Asimismo, en Ataun llevan años trabajando en la recuperación de la memoria histórica, dando a conocer a las víctimas del fascismo y rindiéndoles homenaje con nombres y apellidos. En el acto de este año se recordó a la niña Maria Luisa Ruiz de Arana. Una niña de cuatro años que, tras perder a su padre en la guerra, fue llevada por su madre a Barcelona junto a su hermano recién nacido. La madre también murió allí, en Barcelona. Pero las desgracias de la pequeña Maria Luisa no terminaron ahí, ya que también le arrebataron a su hermano.



Ba omen zen Lazkaoko Senpere auzoan boluntarioz osatutako komite bat. Haien eginkizuna, legezko boterea, errepublika, defendatzea. Bada, talde horretan boluntario ziren bi ataundar, Pedro Basurto eta Joxe Apaolaza, atxilo hartu, Iruñera eraman eta han fusilatu zituzten.

Olaberrian ere omendu zituzten eta badute plazan oroigarri bat faxismoaren bi biktimak: Jusus Bujandak eta Martzelo Lasak. Bujanda, Lazkaon hain ezaguna genuen Joxe Mari Bujandaren (herriko ikastolako lehenengo guraso-taldeko kide eta haren sorreran protagonismo berezia izan zuen langile nekazaina) aita zen.

Eskertu egin nahi ditugu lerro hauen bidez ekimen horiek guztiak. Eta, aldi berean, sakontzen jarraitzea animatu. Lazkaon errepresio frankista, polizia edo estatuarena jasan duten biktima guztiek merezi dute aitormena. Izango dira Extremaduratik edo Espainiako beste txokoren batetik irabazleen bandoak ezarri zien jazarpena jasan ezinik lazkaotar egin zirenak; izango dira bertan bidegabekeriaren aurka zutitu zirenak; izango dira, besterik gabe, leku eta une desegokian zeudelakoan garbitu zituztenak...

Txikik eta Otaegik urte askoren ondoren lortu dute jasan zuten bidegabekeria aitortzea. Jarrai dezagun lanean, isiltasunak ez du-eta bakerik eragiten.

Al parecer, en el barrio Senpere de Lazkao existía un comité formado por voluntarios. Su función era defender el poder legítimo, la República. Pues bien, dos ataundarras voluntarios en dichos comités, Pedro Basurto y Joxe Apaolaza, fueron detenidos, trasladados a Pamplona y allí fusilados.

En Olaberria fueron homenajeados y cuentan con un monumento en la plaza dedicado a su memoria: Jusus Bujanda y Martzelo Lasa. Bujanda era el padre de Joxe Mari Bujanda, tan conocido en Lazkao, miembro del primer grupo de padres de la ikastola y trabajador incansable que tuvo un protagonismo especial en su fundación.

Queremos agradecer a través de estas líneas todas esas iniciativas y, al mismo tiempo, animar a que se siga profundizando en este trabajo. Todas las víctimas que en Lazkao sufrieron la represión franquista, policial o del Estado merecen reconocimiento. Las habrá que, procedentes de Extremadura o de algún otro rincón de España, se hicieron lazkaotarras al no poder soportar la persecución impuesta por el bando vencedor; habrá quien se haya levantado aquí contra la injusticia; las habrá que, simplemente, fueron eliminadas por encontrarse en el lugar y el momento considerados equivocados...

Txiki y Otaegi han logrado, tras muchos años, que se reconozca la injusticia que padecieron. Sigamos trabajando, porque el silencio no trae la paz.



Laida Begiristain

EHBILDUREN BATZARKIDE LAZKAOTARRA



Laida Begiristain Apaolatza (Ataun, 1983)

Maizpide euskaltegi-barnetegiko zuzendaria.

Lazkaoko Talde Feministako kidea.

2023ko foru-hauteskundeetatik

EH Bilduko batzarkide: hizkuntza-berdintasuneko

EH Bilduren bozeramailea eta Ekonomia Sustapena eta
Proiektu Estrategikoetako batzordearen lehendakaria.

Directora de Maizpide euskaltegi-barnetegia.

Miembro de Lazkaoko Talde Feminista.

Desde las elecciones forales de 2023 es juntera por EHBildu:
portavoz de igualdad lingüística de EHBildu
y presidenta de la Comisión de Proyectos Estratégicos.

Batzar nagusiak dira herritarrok gutxien ezagutzen dugun herri-erakundea. Zein dira bere eginkizunak? Nola osatu ziren martxan dagoen 2023-2027 legealdian?

Egia da, oro har, herritarrek gutxien ezagutzen duten erakundea dela. Labur eta modu sinplean esanda, Batzar Nagusiak herritarrek hautatutako ordezkariak (51 batzarkidek) osatzen duten foru-parlamentua dira. Haien funtzio nagusiak dira foru arauak onartzea, aurrekontuak zehaztea eta Foru Aldundiaren jarduna kontrolatzea. 2023ko foru-hauteskundeak EH Bilduk irabazi zituen botoen %36,65 lortuta. Bigarren geratu zen EAJ-PNV, botoen %32,04rekin. 22 batzarkide lortu genituen guk. EAJk lortutako 17 ordezkarien botoekin, PSEren 7rekin, eta PPren boto batekin Eider Mendoza izendatu zuten Ahaldu Nagusi. Foru-gobernua EAJ eta PSEk osatzen dute eta Aldundiaren 10 departamentuetatik 7 ditu EAJk eta 3 PSEk.

Aldundiaren sail garrantzitsuena Ogasuna izango da, noski? EHBilduren oposizioa nolakoa izaten ari da gai horretan?

Zalantzarik gabe, oso sail garrantzitsua da. Ogasun departamentuaren helburuak izan behar du baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatzea, zerbitzu publikoen finantzaketa bermatuz.

Arlo honetan, nahitaez azpimarratu behar dugu indarrean den legealdian egin den zerga erreforma. Gure ustez, aukera galdua izan da Gipuzkoak dituen erronkei aurre egiteko ezinbestekoa den egiturazko aldaketa bat egiteko. Baldintza horiek emango zituen aurreakordio bat adostu genuen 2024ko uztaillean,

Las Juntas Generales son la institución pública que menos conocemos los ciudadanos y ciudadanas. ¿Cuáles son sus funciones? ¿Cómo se constituyeron en la legislatura actual 2023-2027?

Es cierto que, en general, es la institución que menos conoce la ciudadanía. Dicho de forma breve y sencilla, las Juntas Generales son el parlamento foral, formado por representantes elegidos por la ciudadanía (51 junteros y junteras). Sus funciones principales son aprobar las normas forales, fijar los presupuestos y controlar la actuación de la Diputación Foral.

Las elecciones forales de 2023 las ganó EH Bildu con el 36,65 % de los votos. En segundo lugar, quedó EAJ-PNV, con el 32,04 %. Nosotras obtuvimos 22 junteras y junteros. Con los votos de los 17 representantes de EAJ, los 7 del PSE y uno del PP, fue nombrada diputada general Eider Mendoza. El gobierno foral está compuesto por EAJ y PSE, y de los 10 departamentos de la Diputación, 7 están en manos de EAJ y 3 del PSE.

El departamento más importante de la Diputación será el de Hacienda, ¿no? ¿Cómo está siendo la oposición de EH Bildu en este ámbito?

Sin duda, es un departamento muy importante. El objetivo del Departamento de Hacienda debe ser gestionar de forma eficaz los recursos públicos, garantizando la financiación de los servicios públicos.

En este ámbito es imprescindible destacar la reforma fiscal llevada a cabo en la actual legislatura. En nuestra opinión, ha sido una oportunidad perdida para realizar un cambio estructural imprescindible para hacer frente a los retos que tiene Gipuzkoa. En julio de 2024 acordamos un

baina gerora, akordio hartako oinarriak ez ziren jaso eta horregatik diogu aukera galdua izan zela. Gure ustez zerga sistema gero eta bidegabeagoa da. Europako herrialde aurreratuenean pare jarri nahi badugu, aberatsenek ekarpen handiagoa egin behar dute; baita irabazi handiak dituzten enpresek ere. Gure herritarrek eta enpresa txikiz osatutako gure ehun ekonomikoak behar dituzten zerbitzu publikoak lortzeko beharrezkoak dira ekarpen horiek.

Gizarte-zerbitzuetan, Gipuzkoaren zahartze demografikoa kezka-iturri garrantzitsua izango da. Zaintza beharren areagotzea eratorriko da horretatik...

2030ean gipuzkoarron %26,6k 65 urte baino gehiago izango ditu. Datua gorantz doa. Dependentsia egoeran dagoen jendearen kopurua %40ra hurbiltzen ari da. 2023ko hauteskunde-kanpainan behin eta berriro esan genuen antizipazioz aritzera deitzen gintuela egoerak eta zaintza sistema publiko, komunitarioa eta doakoa izateko bidea egitea ezinbestekoa zela. Hitza eman genien herritarrei eta hitz horri zor gatzazkio. Herritarrei galdetu behar zaie nola zainduak izan nahi duten. Legeak esaten du zainduak izateko eskubidea dugula.

2026rako aurrekontuak negoziatzeko garaian gure lehentasunetako bat izan da gai hau. Gure proposamenean 24 milioi jarri ditugu eta Foru-gobernuak beharpenak egin ditu. Eskatzen genuen, besteak beste, zaintza-zerbitzuen koordainketa murriztea, unibertsaltasunerako bidea zabaltzea edota sektoreko langileen baldintzak duintzea.

Euskararen inguruan eta euskalgintzan egin duzu zure ibilbide profesionala Maizpideko irakasle eta zuzendari lanetan. Batzar Nagusietako hizkuntza-berdintasuneko batzordeko EH Bilduren bozemaile zara. Nola ikusten duzu Aldundia ren politika euskarekiko? Ba al du lanerako marjinarik?

Egia da Aldundiak lan handia egin duela euskararen sustapenean, baina hobetzeko aukera beti dago. Argi dago gai honetan arrakala handia dagoela Gobernuako bi alderdien artean eta horrek ez du laguntzen. Hainbat kasutan ikusi dugu hori horrela dela.

Adibidez, bizitzen ari garen oldarraldi judizial, mediatiko eta politikoaren harira, ebazpen-proposamen bat aurkeztu genuen EH Bildutik. Administrazioan euskararen garapenak segurtasun juridikoa izan zezan, eskatzen genuen beharrezko lege-aldaketak egitea eta hizkuntza-politikan jauzi bat ematea. PSEk osoko zuzenketa aurkeztu zuen. Gure proposamena aurrera ateratu zen EAJren botoekin.

Hori adibide zehatz bat da, baina legealdian zehar departamentuek egiten duten euskararen erabilera desorekatuan nabarmena da arrakala EAJren eta PSERen departamentuen artean.

Adibide oso garbia kultura departamentuarena da. Nola sustatuko dugu, bada, euskal kultura euskara ez bada lehenesten antolatzen diren ekitaldi eta kultur jardueretan? Legealdian zehar behin eta berriro izan dugu mahai gainean afera hau. Eta hori da gure lana, gure ustez okerrekoa den norabidea aldarazten saiatzea.

preacuerdo que daba esas condiciones, pero posteriormente no se recogieron las bases de aquel acuerdo y por eso decimos que fue una oportunidad perdida.

Creemos que el sistema fiscal es cada vez más injusto. Si queremos situarnos al nivel de los países europeos más avanzados, quienes más tienen deben aportar más, así como las empresas con mayores beneficios. Estas aportaciones son necesarias para garantizar los servicios públicos que necesitan nuestra ciudadanía y nuestro tejido económico, formado mayoritariamente por pequeñas empresas



En los servicios sociales, el envejecimiento demográfico de Gipuzkoa será una fuente importante de preocupación. De ahí se derivará un aumento de las necesidades de cuidados...

En 2030, el 26,6 % de los guipuzcoanos y guipuzcoanas tendrá más de 65 años. Es un dato al alza. El número de personas en situación de dependencia se está acercando al 40 %. Durante la campaña electoral de 2023 repetimos una y otra vez que la situación nos llamaba a actuar con anticipación y que era imprescindible avanzar hacia un sistema público, comunitario y gratuito de cuidados. Dimos nuestra palabra a la ciudadanía y estamos obligados a cumplirla. Hay que preguntar a la ciudadanía cómo quiere ser cuidada. La ley dice que tenemos derecho a recibir cuidados.

En la negociación de los presupuestos para 2026, este ha sido uno de nuestros ejes prioritarios. En nuestra propuesta destinamos 24 millones de euros, y el gobierno foral ha aplicado recortes. Pedíamos, entre otras cosas, reducir el copago de los servicios de cuidados, abrir el camino hacia la universalidad y dignificar las condiciones laborales de las trabajadoras y trabajadores del sector.

Has desarrollado tu trayectoria profesional en el ámbito del euskera y del movimiento euskaltzale, como profesora y directora en Maizpide. Eres la portavoz de EH Bildu en la comisión de igualdad lingüística de las Juntas Generales. ¿Cómo ves la política de la Diputación respecto al euskera? ¿Tiene margen de mejora?

Es cierto que la Diputación ha realizado un gran trabajo en la promoción del euskera, pero siempre hay margen de



Pertsonen arteko berdintasunak zehar leerro izan behar lukeela politikagintzan nahiko adostua da gure gizartean. Nola ikusten duzu gai hori?

Egia da politikagintzan, berdintasunari dagokionean, termino eta lengoaia bertsuak partekatzen direla sarritan. Baina kontzeptu eta hitz bakoitzaren atzean dagoen letra txikia irakurtzea komeni da. Horrek erakutsiko digu alderdi bakoitzak zer ulertzen dugun hitz horiekin.

Gure ustez, errotikako aldaketak behar baititugu. Emakunderen azken inkestak latzak dira. 16 eta 85 urte bitarteko emakumeon %48,2k pairatu dugu biolentzia matxista. Horrelako egoeren aurrean, ez dute neurri aringarriek balio. Gauzak aldatzen ari dira; neurri handi batean mugimendu feministak herri honi egin dion ekarpenari esker: gizartea bidezkoago eta askeago bihurtu du; emakumeon eskubideak erdigunean jarri ditu; azken batean, berdintasunaren bidea zabaldu du. Mugimendu feministak behin eta berriro interpelatu zituen erakundeak, eta guk, erakundeetan ardura izanik, erantzun egin behar dugu eta herri moduan kolektiboki erantzun behar dugu.

Gabon garaia ate joka dugu. Zer opa nahi diezu herritarrei?

Herritarrei gauza on asko opa dizkiet, baina mezu bat helarazi nahi diet esanez festa hauek ez dutela zertan kontsumismoan oinarritu, oparirik handiena elkar zaintzea dela, denbora partekatzea eta tokiko komunitatea sendotzea.

Kontuak kontu, erosketak egitean, kontuan izan dezatela gure herriko dendeak duten garrantzia, bertako merkatariek gure herriari ematen dioten bizia eta kohesioa. Gogoratu behar dugu gure herriko dendak zaintzen ez baditugu, guztiok mires-ten dugun herri bizia desagertzeko bidean jarriko dugula.

Lazkaoko dendetako erakusleihoak dotore daude, izugarritzko lana egiten dute gure merkatariek jai egun hauetan kalera ateratzen garenean gure kaleak bizi senti ditzagun.

mejora. Está claro que en este ámbito existe una gran brecha entre los dos partidos del gobierno, y eso no ayuda. En varios casos lo hemos visto claramente.

Por ejemplo, ante la ofensiva judicial, mediática y política que padecemos, desde EH Bildu presentamos una propuesta de resolución. Pedíamos realizar las modificaciones legales necesarias para garantizar la seguridad jurídica del desarrollo del euskera en la administración y dar un salto en la política lingüística. El PSE presentó una enmienda a la totalidad. Nuestra propuesta salió adelante con los votos de EAJ.

Ese es un ejemplo concreto, pero a lo largo de la legislatura se ha evidenciado constantemente la brecha entre los departamentos de EAJ y los del PSE en el uso del euskera. Un ejemplo muy claro es el del departamento de cultura. ¿Cómo vamos a promover la cultura vasca si el euskera no se prioriza en los eventos y actividades culturales que se organizan? A lo largo de la legislatura este asunto ha estado sobre la mesa una y otra vez. Y ese es nuestro trabajo: intentar cambiar una orientación que consideramos equivocada.

Existe bastante consenso en nuestra sociedad en que la igualdad entre las personas debería ser un eje transversal de la política. ¿Cómo ves este tema?

Es cierto que, en política, en lo que respecta a la igualdad, a menudo se comparten términos y un lenguaje similar. Pero conviene leer la letra pequeña que hay detrás de cada concepto y de cada palabra. Eso nos mostrará qué entiende cada partido por esos términos. En nuestra opinión, son necesarios cambios de raíz.

Las últimas encuestas de Emakunde son durísimas: el 48,2 % de las mujeres de entre 16 y 85 años hemos sufrido violencia machista. Ante situaciones así, las medidas paliativas no son suficientes.

Las cosas están cambiando, en gran medida gracias a la aportación que el movimiento feminista ha hecho a este país: lo ha hecho más justo y más libre, ha situado los derechos de las mujeres en el centro y, en definitiva, ha abierto el camino hacia la igualdad.

El movimiento feminista interpela una y otra vez a las instituciones, y nosotros, teniendo responsabilidades en ellas, debemos responder, y debemos responder colectivamente como pueblo.

Se acerca la Navidad. ¿Qué te gustaría desear a la ciudadanía?

Deseo muchas cosas buenas a la ciudadanía, pero quiero transmitir un mensaje: estas fiestas no tienen por qué basarse en el consumismo; el mejor regalo es cuidarnos mutuamente, compartir tiempo y fortalecer la comunidad local.

En cualquier caso, a la hora de hacer compras, que tengan en cuenta la importancia de las tiendas de nuestro pueblo, la vida y la cohesión que los comerciantes locales aportan a nuestra comunidad. Debemos recordar que, si no cuidamos las tiendas de nuestro pueblo, estaremos poniendo en peligro ese pueblo vivo que tanto admiramos.

Los escaparates de las tiendas de Lazkao están preciosos; nuestros comerciantes realizan un trabajo enorme para que, cuando salgamos a la calle en estos días festivos, sintamos nuestras calles llenas de vida.



Gazteok etorkizuna *Lazkaon*



22-36 urteko Lazkaotarrak

BETE **INKESTA!**

¡Rellenad la encuesta!



*Guztiz anonimoa / Totalmente anónima

ETXEBIZITZA EZ DA JOLASA

Nola eragiten digu
Lazkaoko etxebizitzaren
egoerak gazteoi?

¿Cómo nos afecta la
situación de la vivienda a
las/los jóvenes de Lazkao?